

3.Pobreziaren kontzeptua eta neurketa

1 Sarrera.

2 Pobreziaren gaineko ikuspegiaren bilakaera historikoa.

3 Pobreziaren neurketa: adierazleak.

4. Giza Garapenaren ikuspuntuaren pobreziaren definizio berria.

1 Sarrera.

Pobrezia eragiten duten prozesuen gaineko eztabaida oso esanguratsua da egun, prozesu hauen egiturazko izaera azpimarratzen den unean, alegia. Aldagai ekonomikoen bilakaera onak eta aurrerapen teknologikoa izan arren, pobreziari lotutako prozesuak murrizteko zurruntasuna ageri da, hobekuntza oso mugatuak, edo epe luzera desagertzeko zantzu gutxi, pobrezi mota berriak eta indartsuak agertzen ez direnean.

Pobreziaren egiturazko izaeraren gainean adostasuna izateak ordea, ez du esan nahi prozesu horrek sortzen dituzten arrazoen gaineko adostasunik dagoenik. Gai oso gutxitan ematen da hausnarketa zientifikoa politika kutsuko ñabardurekin pobreziaren kasuan gertatzen den bezala. Pobrezia bera da dimentsio politiko nabarmena duen arazoa, talde ezberdinen interesak banaketa erduetan eta pobreziaren existentzian duten eraginaren bitartez (Wilson, 1996:24). Pobrezia sortzen duten prozesuak arakatzek galdera zail eta gatazkatsuak eragiten ditu, eta ondorioz pobrezia aztertzeke eta ezagutzeko saiakerak arbuio eta erretizentziak jasaten ditu.

Hau guztia dela eta, ez da harritzekoa pobreziaren arrazoen gaineko analisiak egiterakoan, zientzilariak gaiaren inguruan duen jarrera erabakiorra izatea pobreziaz erabiltzen duen kontzeptuan eta bere arrazoen zergatia finkatzerakoan. Horrela, mutur batetan pobrezia giza izaeran eta gizartearen funtzionamenduan oinarritzen diren kontzeptualizazioak ageri dira. Hauen aburuz orduan, pobrezia fenomeno arrunta gisa ulertzen da. Ikuspegi fatalistari jarraituz, oraindik sendagai egokia aurkitu gabeko gaixotasuna bailitzan, alegia. Pobreziaren iraunkortasunaz ikuspuntuetan emandako aldaketak, eta XX mendeko ekonomi garapen ikusgarria eman arren, gertakizun honen nolabaiteko ezinbestekotasuna ez da zenbait pentsamendutik desagertu oraindik, gehienez epe ertainean irtenbiderik ez duen arazo gisa aurkezten da (Roll, 1992:8).

Beste muturrean, pobrezia gaur eguneko gertakizunen ondorio gisa ikusten da, ez aurrez existitzen ez zen gertakizun berria delako, baizik eta egungo hedapen maila eta iraunkortasunak, eta gure planetak egun

eskaintzen dituen aukerak kontutan izanda, indarrean dagoen eredu ekonomikoen joko arauetan duela iturburu, ereduak pobrezia-ekin akabatzeko inongo asmorik agertzen ez duelako edo bere iraupena hobesten duelako.

Planteamendu bien azpian dago pobrezia-aren benetako izaera, eta gizarte-aren birsortze prozesuetan jokatzeko duen papera ezagutzeko premia. Pobrezia ez da gizatasun-aren ezaugarria besterik, ezta bere berragerpena ezin da aztertu aldika errepikatzen den istripu historiko gisa.

2 Pobrezia-aren gaineko ikuspegi-aren bilakaera historikoa.

Pobrezia-aren formulazio ezberdinak, eta hura adierazteko erabili diren hitzak, adierazten dute aldi berean, kontzeptu-aren konplexutasuna eta duten zama historikoa. Pobrezia-aren kontzeptu-aren eta gizarte batetan momentu horretan nagusi diren baloreen arteko harremana ezagutzea funtsezkoa da bere analisia-arako. Harreman honen garrantzia honako ekonomilari eta soziologo hauek Titmuss, Townsend, Abel-Smith, Atkinson, bestek beste, azpimarratu dute (Woolf, 1989).

Orain dela oso gutxira arte gizateriak, pobrezia teknologi eta ezagutza maila nahikoa ez zutelako, irtenbiderik gabeko gertakizun gisa ikusten zuen. Pobrezia pertsoneri inposatutako egoera zen eta egoera horretan egotearen edo bertatik askatzearen zioa gehienetan zoria zen. XVII. mendean hasten da pobrezia gailendu daitekeen gertakizun denaren oharpena. Aurrerapen teknikoek aurrerapen ekonomikoa posible zela ikusarazi zuten, hau da, gero eta ondasun eta zerbitzu gehiago eskuratu zitezkeela eta pertsonen betebeharrak materialetara bideratu. Ekonomilari klasikoentzako pobrezia bere analisia-aren bizkar hezurra da, ardatza da. Smith-ek berak esan zuen gizarte bat ezin dela zoriontsu eta arrakastatsua izan bere hiritar gehienak pobreak eta zoritarrekoak badira.

Baina XIX. Mende amaiera arte, Booth eta Rowntree-k Erresuma Batuan eginiko ikerketen eskutik, ez da pobrezia-aren arazoa zientzialari-aren ikergai teoriko gisa hartzen. Beraiek pobrezia-muga, iraunbizitza bermatzeko errenta maila gisa finkatzeak, pobrezia-aren gaineko ondorengo ikasketen garapena nabarmen baldintzatu zuen.

XX. mendeko azken hamarkadetan pobrezia-aren gaineko ikasketak sustatu egin dira pobrezia prozesu-aren "berraurkitzearen" ildotik. Orain bai, pobrezia-aren oharpena ezberdina izan da herrialde garatu-eta edo

herrialde azpigaratuetaz aritzerakoan. Bietan ordea, hirurogeita hamar hamarkadan emandako "pobrezia prozesuen berraurkikuntza" izan da ondorengo hamarkadetan gaiaren gaineko ikerketak sustatzeko bultzada nagusia. Azken ezaugarri hau, hots, pobrezia prozesuen errealitatearekin bat-batean topo egitea, iraunkorra izan da pobreziaren gaineko ikerketetan, ia ikerketarik gabe luzaz egon ondoren, honako aurkikuntza batek, ikerketak berriro sustatzea ekarri arte.

II Mundu Gerra ostean, "desarrollismoa"-ren garaian, pobreziaren arazoa konpondutakoa ez baina arazorik planteatzen ez zuen errealitate gisa ikusten zen. Herrialde garatuetan, ongizate Estatuaren hedapen eta sakontze prozesuak pobrezia arazo sozial nagusi gisa desagertu zela pentsarazi zuen, edo gutxienez, denborarekin gaindituko zen egoera ez kezkarria gisa. Berrogeita hamar eta hirurogei hamarkadetan, pobreziaren arazoa gizarte zientzilarien lehentasun eta agendatik desagertu zen, salbuespen gutxi batzuekin, Townsend eta Sen kasu. Garai honetan zehar pobreziaren arazoa gizarte kudeaketa teknikoaren baitan kokatu zen, langabezi masiboa eta iraunkorra eta gizarte eskusio fenomenoek ordurarteko funtzionamendu ekonomiko eta sozialaren gaineko kezka sortarazi zuten arte.

Garapen bideetako herrialdeen egoera guztiz bestelakoa zen. Behar larrien iraupena baztertzen ez bazen ere, egoera horren azalpena ematerakoan, histori mailako arrazoiak alde batetik, eta klimatiko-naturalak, edo etniko kulturalak bestetik ematen ziren. Honi aurre egiteko hautatutako estrategia ekonomi garapena sustatzea zen. Pentsamendu nagusiak, ekonomi sistema kapitalistak hazten eta hedatzen jarraitzeko zuen aukera mugagabeetan sinesten zuen, bai eta mendebaldeko ekonomia kapitalisten hazkundeak garapen bideetako herrialdeen bilakaeran zuen ondorio onuragarrietan ere. Pobrezia errealitate latza zen baina ez zuen arreta berezia merezi, garapena etortzear zegoen eta.

Pobreziak zentzu guztietan ez-ustean harrapatu zituen ordea. Herrialde garatuetan lehendabizi. 1962. urtean, Harrington, M-ren *The other America* lanak, pobrezi mota zahar eta berrietan berrogeita bost milioi pertsona zeuden herrialde baten irudia agertu zuen. 1964. urtean, Johnson lehendakariak pobreziaren aurkako borroka aldarrikatu zuen. Erresuma Batuan berriz, Abel-Smith, Brian eta Townsend, Peter-ek 1965. urtean *The poor and the poorest* liburua argitaratzen dute, datu ofizialak erabiliz 1960. urtean Erresuma Batuan populazioaren % 14 pobrezia egoeran bizi zela agerian utzi zuten. Datu hauek, ordurarte uste

izandakoaren kontra, hazkunde ekonomikoa eta pobreziaren desagertpenaren artean erlazio automatikorik ez zegoela argi uzten zuten.

Garatutako ekonomietan gertakizun horiek ematen baziren, ez da harrizkoa hirurogei eta hirurogeita hamar hamarkadetan sustatutako ekonomi garapen egitasmoek garabideetako pobrezia zuzendu beharrean, desberdintasunak areagotu izana eta gehiengo bizi baldintzak hobetzeko balio ez izana. Garai honetan hazkunde ekonomikoa lortzeko saiakerek eta lehentasunak sortzen ari ziren pobrezia prozesuak ezkutatu zituen. Hirurogeita hamar hamarkadan, LANE-k bultzatutako oinarritzko beharren ikuspegiak eraginda, garabideen herrialdeen gaineko pobrezia aztertzeke ikerketa asko egin ziren. Geroago, laurogei hamarkadan, garabideetako herrialdeetan modu orokorrean, eta batez ere Latinoamerikan, ezarritako egiturazko doikuntza programen ondorio ekonomiko eta sozial kaskarrak eraginda, berriz sortzen da pobreziaren gaineko ikerketak egiteko beharra (Wilson, 1996:21).

Laurogeita hamar hamarkadan, nazioarteko erakundeek nazioarte mailan pobrezia pausoz pauso gaitzeko egindako aurrikuspenak ez dira bete. Pobrezia desagertarazteko helburua nazioarteko foroetan presente izan eta garapenerako lankidetzaren estrategiaren baitan lehentasun gisa jarria izan den arren, lortutako emaitzak eta etorkizunean hauek onera egiteko ez dute baikortasunerako tarterik uzten egun indarrean dauden ikuspegiak bere horretan jarraitzen badute behintzat.

3 Pobreziaren neurketa: adierazleak.

3.1 Pobreziaren neurketaren gaineko aipamen orokorrak.

Pobreziaren gaineko edozein neurketa metodok neurtu nahi duen errealitate sozialaren definizioa izan behar du. Horregatik pobreziaren adierazle guztiek pobrezia aztertzeke jarraitu den ikuspegia zein den adierazten dute. Pobreziaren definizioak barnebiltzen dituen dimentsio kopuru eta izaeren arabera, eta bera neurtzeke abian jartzen den metodologiak jokabide eta mota bateko edo besteko adierazleak erabiliko ditu.

Mende honen zehar pobreziak barnebiltzen dituen osagaien gaineko ezagueraren bilakaera hiru kategoria nagusi hauetan koka daiteke: a) pobrezia errenta edo sarreren ikuspuntutik aztertzen duena, eta bizitzeko

gutxieneko baldintzak bakarrik kontutan hartzen duena; b) oinarrizko beharretatik abiatzen den pobrezia, oinarrizkoenetatik hasita, hots, elikadura, hezkuntza, osasuna, eta etxebizitza, eta gizarte mailan bizimodu egokia ahalbidetzeko bitartekoak kontutan hartu arte; c) gabezi erlatiboa, zeinek pertsonaren ikuspegi zabalagoa duena eta zeinetatik pobrezia pertsonak garatzeko dituzten gaitasunen asetzearen arabera jartzen duena (PNUD, 1997:18).

Egin beharreko bereizketa garrantzitsuetako bat pobreziaren kontzeptu absolutu batetik abiatzen denentz da. Pobrezia absolutua izan da pobreziaren gaineko ikerketen orain arteko erreferentzia nagusia. Pobrezia absolutua dela erreferentzia diogu, pobreziaren definizioak muga argi bat ezartzen duenean kontutan hartuko diren beharrak erabakitzeko orduan edo pobrea izateko errenta maila zehazteko orduan. Mugatze hori gizarte bakoitzak zehazten dituen irizpideen arabera ematen da, non gizarte horrentzat gutxieneko bizi baldintzak zeintzuk diren agertzen dute. Pobrezia absolutuaren ikuspegiaren ezaugarri behinena zera da, behin muga zehaztu denean, ukitu gabe geratzen da eta ez dago bestelako erreferentzien beharrik.

Ikuspuntu honetatik pobrezia neurtzeko metodo egokiena zehazteko orduan egiten den ohiko galdera zera da, ea zein izan behar duen abiapuntua kontsumoa edo errenta. Hau da, zer da egokiagoa neurketa egiteko, beharrak asetzeko gaitasun potentziala kontutan hartzea edo benetan asetze hori eman den ala ez ikustea. Ikuspuntu kontzeptualetik begiratuta ez dago zalantza askorik esateko kontsumoak oinarri egokiagoa eskaintzen duela pertsona baten egoera zehazteko errentak baino. Izan ere, errenta, bere izaera aldakorra dela eta, engainagarria suerta daiteke, zeren maila ezberdinak agertzen ditu behaketa egin den unearan arabera (aldi baterako langileen kasuan esaterako). Aldiz, gastuaren bilakaera egonkorragoa izaten da, gutxieneko beharrei dagokienez eta errentarekin alderatuta bai behintzat. Ohikoa da familiak bere estrategiak gutxieneko kontsumoa epe luzera begira bermatzera bideratu izatea, beraz kontsumoa aukeratzea egokiagoa da.

Aurrekoa kontutan hartuta bi dira pobrezia absolutuaren maila zehazteko erabiltzen diren prozedurak: a) zeharkako metodoa, zeinek bitarteko aldagaia erabiliz definitzen du pobrezia. Pertsona edo familien batz besteko sarrerak hartzen dira bitarteko aldagai gisa, eta honetaz baliatzen da zehazteko gutxienezko ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko adinakoa den ala ez; eta b) metodo zuzena, zeinek asetze mailan du abiapuntua, hots, benetan asetutako beharrak aztertzen ditu, egindako kontsumo datuak erabiliz.

Datuen eskuragarritasuna eta neurtzeko erraztasuna moduko arrazoi praktikoak direla eta errealitatean zeharkako bidea hartu da nagusiki, pobrezia zehazteko errenta maila hartu izan da irizpide nagusi bezala. Aukera hau egin izanak ez du ukatzen pobrezia definitzeko orduan sarrera maila irizpide gisa hartzeak sortzen dituen zailtasunak eta akatsak. Baina akats guzti hauen gaineratik, ikerlari gehienek pobrezia gutxienezko ondasun eta zerbitzuak lortu ezin ahal izateko errenta mailaren ildotik definitu dute (Blackwood eta Linch, 1994:568).

3.2 Zeharkako metodoa.

Metodo honen bitarteko behinena pobreziaren marra deritzana da. Pobrezia marra honek pobreak (pertsonak edo familiak) nortzuk diren zehaztea ahalbidetzen du. Dato honetatik abiatuta zehazten dira herrialde bateko pobreziaren egoera islatzeko egokienak irizten diren adierazleak. Pobreziaren marraren kontzeptua honetan datza, zehaztea zein den herrialde zehatz batetan pertsona edo familia batek gutxieneko bizi baldintzak betetzeko behar duen errenta maila teorikoa. Horrela, pobrezia marra zehazten du zein den errenta maila zeinen azpitik pertsona edo familia bat pobrea dela jotzen den. Bi pobrezia maila hartzen dira kontutan: pobrezia larria, elikadura betebeharrak asetzeko adinako errenta maila eta pobrezia moderatua edo pobrezia soilik, elikaduraz gaineko beste gutxiengo betebeharrak jasotzen duena. Beraz, kasu bakoitzean zehaztu beharko da hauetako zein marra aukeratu den neurketa egiteko. Ezer esaten ez bada bigarren mota dela suposatzen da, pobrezia moderatuarena alegia.

Pobrezia marraren lehen zehaztapenek biziraupen fisikoa bermatzen zuen errenta maila bilatu zuten. Zentzu honetan XIX. mende amaieran, Booth eta Rowntree-k eginikoak izan ziren aitzindariak. Geroztik, pobreziaren marraren adierak aldaketa batzuk izan ditu herrialdeetako egoera zehatzak eta gutxieneko bizi maila zer den ulertzeko moduan izandako aldaketen arabera, baina funtsezko aldaketa handirik gabe. Latino Amerikan esaterako, Almitir-ek (1979) eginiko lanetik abiatuta eta ondoren CEPAL, OIT eta PREALC-ek bultzatuta ia herrialde guztietako pobrezia marra osatu dira, pobrezia neurtzeko tresna behinenak izatera iritsiz.

Pobreziaren marra kontzeptu gisa argia den arren, arazo ugari sortzen ditu errealitatean hura osatzeko garaian. Alde batetik ezin da inongo pobrezia marrik zehaztu zein osagai sartu, eta zeini eman lehentasuna gainean juzkurik egin gabe. Bestetik, metodologia ezberdinak daudelako.

Garabideetako herrialdeetako pobrezia marrak zehazteko bi hauetako prozedura bat hautatu dute:a) oinarri gisa hartzea herrialde horretako monetan baloratutako oinarrizko betebeharrak biltzen duen otzara edo b) herrialde guztietarako baliagarria den kopuru finkotik abiatu (herrialdeen arteko alderaketa posible egiteko asmoz, bakoitzak bere otzara zehazteak alderaketarako sortzen dituen oztupoak ekiditeko).

Azken prozedura hau jarraituz Munduko Bankuak 1990. urteko Munduko Garapenaren Txostenean pobrezia marra bakarra eta unibertsala proposatu zuen, irizpide zehatzak eta sinpleak erabiliz. Alde batetik, pobrezia larriaren marra buru bakoitzeko 275 \$-tan zehaztu zuen (1985ko Eros Ahalmen Berdineko \$tan), Indiaren pobrezia marra alegia. Bestetik, pobrezia marra moderatua buru bakoitzeko 370 \$-tan zehatu zuen, horretarako Bangladesh, Egipto, India, Indonesia, Kenya, Maroko eta Tanzaniako pobrezia marren batz bestekoa erabiliz. Erabaki hauek hartzea posiblea izan zen aurretik herrialde gehienek bere pobrezia marrak zehaztuta zutelako, denek herrialdeko monetan baloratutako oinarrizko elikagai otzara batean oinarritua (koefiziente zehatzagatik biderkatuz hartzen ziren elikadura arloko gainontzeko beharrak kontutan hartzeko).

3.2.1. Pobreziaren marran oinarritutako pobreziaren adierazleak.

Pobrezia marrak pobreziaren irizpide argia eta zalantza gabekoa ematen dute eta aldi berean pobreak nortzuk diren zehazteko tresna bat. Kontua zera, zelan erabili informazio hori pobreziaren adierazle bat edo batzuk lortzeko, hau da pobreziaren neurri globalen bat, zeina pobreziaren hedapena adierazteko balio duen eta denboran zehar duen bilakaera eta hartutako politikak izan duten eragina aztertzeko balioko duena. Pobreziaren marretan oinarritzen diren pobreziaren adierazleak bi multzo nagusitan banatzen dira: sinpleak eta konposatuak.

i) Adierazle sinpleak.

1) Pobreziaren eragina edo hedapena.

Pobreziaren eragina edo hedapenarekin neurtu nahi dena zera da, zein da pobreziaren marrak adierazten duen errenta maila lortzen ez duten familia edo populazioaren portzentaia. Matematikoki oso erraz adierazten dena:

$$H = \frac{\text{pertsona- famili pobreen kopurua}}{\text{guztizko populazioa}} (* 100)$$

Gehien erabiltzen den adierazleetakoa, oso sinplea delako baina baita ere, honen esanahia ulertzea erraza delako. Adierazle honen erabilera ez da zalantzan jartzekoa adierazle beragatik, pobrezia neurtzeko adierazle bakar gisa erabiltzen denean baino. Kasu horretan adierazle honek muga zehatzak ditu. Bata, ez du ezer esaten marraren azpitik daudenen egoeraz, ez du esaten gabezi berak dituzten edo alde handiak dauden; ezta zenbat dauden hauetako egoera bakoitzean; ezta marratik gertu edo urruti dauden eta zenbat kasu bakoitzean. Bestea, pobreziaren analisisian funtsezko den bilakaera ezagutzeko oso ahula da adierazle hau. Esaterako, pobreen egoera nabarmen okertu daiteke eta adierazle honek pobreen kopuru berbera eman dezake, marraz beheara dauden egoeraz ezer esaten ez duelako, ez hortik atera diren, edo egoera okertu den. Azkenik, adierazle honek ez du ezer esaten pobrezia ezagutzeko desberdintasun nagusiaren egoerari buruz, hots, pobreen artean zein den emakume eta gizonezkoen arteko banaketa.

2) Pobreziaren zuloa / lubakia.

Adierazle honek neurtzen du zein den aztertu den pertsona edo familiaren errenta maila eta pobrezia marraz zehazten duenaren arteko aldea. Hau da, neurtzen du zenbat diru falta zaio pertsona / famili bati pobre izateari uzteko. Horrela, pobreek duten gabezi maila jakitea ahalbidetzen du, nolabait. Matematikoki pobreziaren zuloa edo pobreziaren intentsitatea honela adierazten da:

$$I = \text{pobreziaren marraren balioa } (z) - \text{pertsona/familiaren errenta } (y)$$

Pobre bakoitzak duen aldea beste guztienarekin batuz herrialde horren pobreziaren intentsitatea lortzen dugu, hots

$$I = 1 / q \sum (z - y) / z \quad q = \text{pobreen kopurua.}$$

Adierazle hau H-ren osagaia da baina pobreen taldearen barruan pobrezia zelan banatzen den adierazi gabe jarraitzen du. Ez du esaten zenbat dauden gabezi larriekin, ezta taldearen baitan ematen diren aldaketak ere. Orain bai, adierazle honek bai esaten du zenbat errenta behar den herrialde horretako biztanle guztiak pobreziaren marra gaindi dezaten. Zifra hori BPG-rekin alderatzean helburu hori lortzeko herrialdeak izan ditzakeen zailtasunak edo gaitasunak agertzen ditu era berean. Hurbilpen koantitabo honek ez du esan nahi pobreziaren arazoa bukatuta dagoela baliabide kopuru hori pobreei bideratzearekin bakarrik,

baina bai adierazten du pobreziaren arazoa konpontzeko gutxienez egin beharreko ahalegina eta baita herrialdeen arteko alderatzeak egitea ahalbidetu ere.

Bukatzeko esan behar da pobreziaren adierazle hauek guztiek bakarrik hartzen dute kontutan pobreziaren murratik bera gertatzen dena, baina ez murratik gora gertatutakoa. Abiapuntutik duten muga horrek ez du uzten intentsitatearen adierazleak duen potentzialtasun osoa erabiltzea. Hala ere, badira adierazle honen zenbait bertsio non pobreziaren lubaki hau populazio osoa kontutan hartuta egiten duena (CEPAL 1991).

ii) Adierazle konposatuak.

Adierazle hauek, aurretik aipatu adierazle sinpleak erabiliz osatuak, pobreziaren ikuspegi osatuagoa ematea bilatzen dute, adierazle bakar batetan pobreziaren hedapena, intentsitatea, eta banaketa bertan islatzeko asmoz.

a) Pobreziaren tamaina .

Aurreko bi adierazle sinpleen gabeziak gainditzeko modu bat biak batzen dituen adierazle bakarra osatzea da. Hau egiteko proposamen sinpleena Senek egin zuen, eta pobreziaren tamaina izendapena du, geroago gehiago garatu zuen Sen indizearen aurrekaria da. Matematikoki honela adierazten da:

$$P1 = H * I$$

Pobreen kopurua eta pobreziaren intentsitatea bildu ditu aldi berean, eta zentzu horretan pobreziaren ikuspegi osatuagoa ematen du, baina batz bestekoak erabiltzearen gaitza ezin du gainditi, hau da, taldearen baitako banaketa ez du kontutan hartzen. Adierazle hau normalean H eta I erabilerarekin batera ematen da, eta aurreko biak ematen duten informazio isolatua osatzeko bide egokia da.

3.3 Metodo zuzena edo oinarrizko betebeharren ikuspegia.

Errentak pobrezia neurtzeko eta definitzeko dituen gabeziak ikusita eta pobreziaren kontzeptu beraren inguruan erreferentzia berriak topatzeko beharrak, fenomeno hau bere osotasunean hobetu ezagutzeko eta neurtzeko nahiak dira metodo zuzenaren abiapuntua. Bilatzen dena zera da, zehaztea zeintzuk diren benetako gabezi egoeren mailak- o beste

aldetik begiratuta zeintzuk diren lortutako asetze mailak, modu zuzenean aztertuz pertsonen beharren asetzeko gabeziak-edo lorpenak. Ikuspegi honetan orduan gutxienezko betebeharrak horiek zeintzuk diren zehaztea da giltzarria.

Oinarrizko betebeharren metodoa hainbat arlotan zeharkako metodoa baino hobea den metodo osagarri gisa hartua izan da sarritan. Esaterako diru sarreratan baino pobreziaren gaineko kontzeptu zabalagoan du abiapuntu; gertakizun sozial eta gizatarrei arreta gehiago eskaintzen dizkie; pobreziaren gainean hartutako politikei garrantzi handia ematen die, eskaintako zerbitzuak behartsuei ondo bideratuak izatea kontutan hartzen du.

Abiapuntu gisa ikuspegi honek biziraupen soila baino pobreziaren gaineko kontzeptu zabalagoa erabiltzen du, zeinek gutxienezko betebeharrak finkatzerakoan betebeharrak biologikoez gain tokiko komunitateetan behar bezala integratzeko beste motatako beharrak aintzat hartzen ditu, famili edo norbere biziraupen exijentzietatik haratago doana. Baina zailtasun garrantzitsua du zein behar mota kontutan hartu eta nola definitua erabakitzerakoan erabili beharreko irizpide onargarriak finkatzeko, eta hortik abiatuta bere asetze maila islatzeko adierazleak aukeratzea.

Ikuspegi honen aburuz, gizarte adierazleak errenta adierazlearen bitartez kontutan hartzen ez diren gainontzeko dimentsioak biltzeko egokiagoak dira, eta bide horretatik jo dute adierazleak aukeratzeko orduan. Horrela, hezkuntza, nutrizio, osasun, eta etxebizitza mailan lortutako emaitzak biltzen dituzten adierazleak erabili dute bilatzen zuten helburu hori betetzeko adierazle egoki gisa (Streeten, 1986:79). Ez da egia ordea, lortutako emaitzak biltzen dituzten adierazleak berez jatorrizkoak baino hobekoak direnik, zeren eta zein den oinarrizko beharraren arabera batzuk edo besteak izango dira egokienak. Dena den, gakoa ez dago adierazle eta oinarrizko beharraren arteko harremanean, lehenak bigarrena ondo islatzen duenentz, gizarte ongizatean ematen diren hobekuntzak zeintzuk adierazleak islatzen dituzten hobeto baino. Eztabaida ez datza osasuna emaitzak kontutan hartzen dituen adierazle batez hobeto neurtzen denentz (bost urte azpikoen hilkortasun tasaren bitartez esaterako), baizik eta garapena, ongizatea, edo pertsonak sofritzen dituzten gabeziak zein motatako adierazleak islatzen dituzten hobeto jakitean.

Oinarrizko betebeharren ikuspegia aplikatzeko bidean adierazle gisa erabiltzeko proposamen asko egin izan dira. Egindako proposamenak bi

esparrutatik aztertu daitezke:bata arau mailan eta bestea kopuru aldetik.Arau mailako ikuspuntutik proposamenak kontutan hartzen dituzten betebeharren kopurua eta kalitatearen arabera egiten da.Zenbat eta exigentzi arautzaile garaiago izan, orduan eta duintasunezko bizi baldintza maila garaiagoa izango da eta betebeharrak gehiago bilduko ditu.Kopuruaren aldetik begiratuta, bestalde, proposamen bakoitzak behar bakoitza neurtzeko orduan egiten duen neurketaren sakontasuna hartzen da kontutan.Izan ere, batzuk adierazle asko eta ezberdinak erabiltzen dituzte behar bakoitzarentzat eta beste batzuk oso hurbilketa orokorrak baino ez.

3.3.1 Pobreziaren muga oinarrizko betebeharren arabera.

Pobreziaren marra pobreziaren muga kontzeptuan oinarritutako hainbat adierazle sortzeko abiapuntu den modu berean, asegabeko oinarrizko betebeharren metodoa (AOB) oinarrizko betebeharretan oinarritutako pobreziaren ikuspegi gaiztatzeko bidea da. AOB metodoa latino Amerikan garatu zen laurogei hamarkadan LANE-k sustatua eta geroago laurogeita hamar hamarkadan CEPAL-ek eta PNUD-ek abiarazitako Pobrezia Gainditzeko Erregio Egitasmoen bitartez.Orain bai bi metodoak, pobreziaren marra eta Asegabeko Oinarrizko Betebeharrak, pobreziaren ikuspegi absolutu batetik abiatzen dira, bata dirutan neurtzen duena eta besteak oinarrizko ondasun eta zerbitzuetan neurtua.

Latino Amerikaren kasuan, CEPAL-ek pobreziaren eragina kalkulatzeko eginiko saiakeratan pobreziaren marren informazioa asegabeko oinarrizko betebeharrekin osatu zuen.Bigarren metodo honen bitartez pobreziaren muga zehazteko modu errazean egin zen.Lehenengo, zein behar eta zein adierazleren bitartez izango diren islatuak aukeratu da.Bigarren, adierazle bakoitzarentzako erreferentzia gisako balorea zehazten da- balore horren azpitik pobretzat hartuko da. Segidan, pertsona edo familiak behar horietan lortutako emaitzak behatzen dira eta erreferentzia /gutxieneko balorearekin alderatu egiten dira.

Normalean honako behar eta adierazle hauek erabili izan dira metodologia hau erabiltzerakoan:

Pilaketa: gela bakoitzeko hiru pertsona edo gehiago bizi diren familiak.

Etxebizitza mota:desegokiak (algeran diren gelak, kili-kolozko etxebizitzak) diren etxebizitzetan bizi diren famili kopurua.

Osasun zerbitzuak:Bainugelarako osagarriak ez duten etxeetan bizi diren familiak.

Hezkuntza: eskolara joateko adinean dauden umeen artean (6-12 urte) gutxienez bat eskolara joaten ez den familiak.

Irizpide konbinatuak (*diru sarrera nahikorik eza adierazten dutenak*): okupatuta dagoen bakoitzeko beste lau okupatu gabeak, non familia burua hezkuntza maila urria (bi urtez joan zen oinarrizko eskolara) duten familiak.

Pobrezia neurtzeko modu hau nahiko anbigua da zeren azken emaitzak aldatu egiten dira ze behar eta zelan neurtu erabakien arabera. Horregatik lehenengo kontua ze betebeharrak hartzen dira kontutan finkatzea da. Erabaki klabea da inondik ere, zeren zenbat eta betebeharrak gehiago sartu, pobreziaren eragina orduan eta handiagoa izango da; exijentzi maila igotzean pobreak diren kopurua igotzen delako, alegia. Bigarren, behin zein betebeharrak kontutan hartuko diren zehaztu ondoren oso garrantzitsua da betebeharrak horren asetzeari zein adierazlerekini islatuko den erabakitzea. Adierazle guztiak ez dute betebeharrak modu berean islatzen. Hauetako batzuk, erraz betetzekoak dira eta hauek aukeratzekotan benetan dagoen gabezi egoera faltsutuko dute. Hirugarren, erabakiorra da aldi berean, aukeratzeko adierazle horren zein balio aukeratzeko dugun betebeharrak asetu denentz erabakitzeko gutxiengo muga gisa. Muga hori finkatzerakoan nahita muga garaiegiak jartzeak pobreen kopuru handiak eragingo ditu eta baxuegiak jartzeak aldiz, kopuru baxuak, berriro ere errealitatea faltsutuz.

Metodo honen akats behinena gabezi bakoitzak duen pisua zehazten ez duela da. Adierazle guztiak maila berean jartzen dira eta hauetako edozeinetan gutxiengora ez iristeak eragiten du famili hori modu zuzenean pobre gisa sailkatzea. Ez du gabeziaren intentsitatea kontutan hartzen, ezta zertan eman den gabezia bereizten; edo gabezia zenbatekoa den. Zentzu honetan pobreziaren marrak zituen akats berak ditu ikuspegi honek.

4. Giza Garapenaren ikuspuntuaren Pobreziaren definizio berria.

Pobreziaren ohiko ikuspegitik ikuspegi alternatibo batetarako aldaketa pobreziaren gaineko kezka *pobreziaren hedapena eta egoeraz galdetuz pobrezia zergatietara igarotzen denean ematen da*. Ikuspegi alternatibo berriak pobreziaren kontzeptualizazioa egoera berrira egokitzeko beharra ikusten du; pobreziaren gaineko definizioa aldatzeko eta aldi berean pertsonen ezagutzen zaizkien baloreak oinarritzat duen pobreziaren definizio berria bilatuz. Ikuspegi honen

abiapuntua egungo egoerara ondo egokitzen den pobreziaren gaineko arau berria bilatzeko kezka da: errealitate berriek kontzeptualizazio berriak behar dituzte. Pobrezia etengabeko aldaketak dituzten eraldaketa prozesuen bitartez adierazten da eta hauen ulermena eta analisiak kategoria eta bitarteko berriak behar dituzte. Ikuspegi alternatiboa, Garapenerako Nazio Batuen Egitasmoak (PNUD) Giza Garapenaren inguruan egindako proposamenaren inguruan sortu da laurogeita hamar hamarkadan eta honako hauek dira ikuspegi berriaren osagai eta kategoria berri nagusienak: dimentsio-askotasuna, pobreziaren kontzeptu erlatiboa, analisirako bitarteko berriak, esanahi normatiboa, aldatzen ari den errealitatearekiko egokitzapena, pobreziaren zergatienganako kezka, besteak beste.

Pobreziaren ikuspegi absolutu batetik ikuspegi erlatibo batera igarotzeak pobreziaren muga zehazteko irizpideak aldatzea baino askoz gehiago suposatzen du. Pobreziak erreferentzia finkoa bakarra ez duela onartzeak, izaera normatiboa izatea behar du nahitaez. Objektiboki finkatu zitezkeen biziraupenaren gutxienezkoak pobreziaren muga gisara erreferentzia izateari uzten dieten heinean, muga hori zehazteko irizpide berriak behar dira. Honek ongizateaz galdetzea suposatzen du, eta baita zein egoeratan jasaten dute pertsonak ongizate falta eta ondorioz pobreak dira.

Ikuspegi berri honen formulazioan Senen ikuspegiak eragin handia izan du. Izan ere, bere proposamenak ordurarteko ohiko ongizate ekonomiari kritika zorrotzak egiten dizkio, ikuspegi honen ongizatea eta bizi kalitate kontzeptuek duten oinarri ahulak argi utziz. Ongizate kontzeptua metaketa eta oparotasunaz gain dauden beste dimentsio berrietara irekitzeak pobreziaren eta garapenaren kontzeptu alternatiboak sortzea suposatzen du. Horrela Senen iritziz pertsonen bizi kalitatea ebaluatzeko dimentsio erabakiorra pertsona orok dituen gaitasunetan datza; zeren gaitasun hauek barnebiltzen dute pertsonaren askatasun baikorren hedapen maila, ondorioz, ongizatea, pertsona orok aurrean dituen aukera ezberdinen artean aukeratzeko gaitasunak hedatzean datza.

Helburu behinena zera da, pertsona orok pertsona gisa bizi ahal izatea bermatzea. Noraino hel daiteke asmo honetan? Hori beste kontua da. Pertsona bat noiz hasten den pertsona izaten zehazteak ez du esan nahi azken emaitza zein izango den antzematea, ezta desiratu ditzakeen egoera posible ezberdinak zehaztea ere. Izan ere, lortu nahi diren helburuak anitzak izan daitezke. Pobrezia orduan, berak nahi dituen helburuak lortzeko bidea hartzeko moduan egoteko gaitasunak dituenentz arabera eta baita hori egia bihurtzeko beharrezkoak diren

baliabideak lortzeko esfortzuak egiteko moduan dagoenentz arabera definitzen da.

Pobreziaren definizio horrekin pobrezia non hasten den eta non bukatu jakin ahal izateko, edozein pertsona, pertsona bezala garatzeko zein gaitasun fisiko eta zein funtzionamendu behar dituen zehaztea eskatzen du. Zein den pobrezi muga berri hori definitzea da gako nagusia.

4.1 GNBE-en giza pobreziaren kontzeptua.

Giza garapenean oinarrituta GNBEak **Giza Pobrezia** proposatzen du pobrezi kontzeptu berri gisa. Izan ere, Giza garapenaren ikuspegi honek ongizatea birdefinitu zuen moduan, pobreziaren kontzeptuaren berrikusketa prozesua aurrera eramanean zuten. Honela esaten dute 1997ko Giza garapenaren txostenean (17. orri) "Giza garapena aukerak handitzean badatza, pobreziak aukera horiek eta giza garapenaren honako oinarritzko hautuak ukatzen direla adierazten du: bizitza luzea, osasuntsua eta sortzailea bizitzea, bizi baldintza duina, askatasuna, duintasunaz gozatzea, norbere eta besteenganako errespetua. Giza garapena eta giza pobreziaren arteko kontraesanak garapena ebaluatzeko bi modu ezberdin adierazten ditu."

Pobrezia orduan, gutxienezko gaitasun gisa hartzen diren gaitasunak ez izatea edo hauek eskuratzeko orduan izandako porrota da. Pobreziaren erreferentzia ez da errenta edo sarrerak, pertsonak ongizatea lortzen dutenentz prozesua baino.

Kontzeptualizazio mailan bada ere, GNBE-ak Senek proposatutako pertsonen gaitasunak dira pobrezia zehazteko hartzen duen erreferente behinena. Honek pobrezia gertakizun erlatibo gisa ulertzea suposatzen du, emaitza baino prozesu gisa ulertzea, dimentsio-askotako esanahiarekin: "gaitasunaren kontzeptuaren baitan pertsona baten pobrezia egoera, ez da bakarrik pertsona hori benetan bizi den pobrezi egoera bera (gabezi egoera), bizitza baliotsua eta preziatua bizitzeko orduan gizarte eta egoera pertsonalek sortzen duten mugen ondorioz sofritzen dituen aukera gabeziak baizik." (PNUD, 1997:18).

GNBEk hasierako urteetan kaleratu zituen txostenetan ez zuten pobreziaren inongo kontzeptu alternatiboa eratzea planteatu. Giza Garapenaren Indizearen diseinuak garapen prozesuan izandako lorpenekin batera bete gabeko gabeziak biltzea ahalbidetzen ez bazuen ere, harritzekoa da luzaroan egitasmo honek ez somatzea pertsonak sofritzen zituzten gabeziak islatzeko ahalmena zuen adierazle aproposa sortzeko inongo beharrik. 1996. urteko txostena arte itxaron behar da,

GNBEk GGla pertsonak jasaten dituzten gabeziak eta beraien arteko desberdintasunak islatzeko adierazle egokia ez zela onartzeko eta pobrezia neurtzeko adierazle berezia proposatzeko, aurrekoaren osagarri.

4.2 Giza Pobreziaren adierazleak.

GNBEaren 1996 eta 1997.urteko txostenetan pobrezia, aukera gabezi gisa ulertua islatzeko bi adierazle proposatzen dira. Bata Gaitasunen Pobrezi Indizea da eta 1996. urteko txostenean agertu zen eta bestea 1997. urtekoan agertua, Giza Pobreziaren Indizea deritzana. Bi indizeak ezberdintasun nabarmenak dituzte, nahiz eta 1997.urteko txostenean bigarrena aurkeztean aurrekoaren jarraitzaile gisa aurkeztu eta oinarri berdinetatik eratua izan zela aldarrikatu. Bi urteren buruan bi adierazle ezberdin proposatzeak ikuspegi berriak ezartzen dituen baldintzak betetzeko gaitasuna duten adierazle konposatuak eratzeko dauden zailtasunak adierazten ditu.

Gaitasunen Pobrezi Indizeak (GPI), jendearen gabezi egoerak hobeto islatzeko asmoz, pobrezia famili mailan aztertzea zuen helburu. Bere helburua zenbait gabezien gainean zeuden egoera larriak adieraztea zen, giza garapena sustatzeko bidean non eragin behar zen lehentasunez identifikatu ahal izateko.

GPIan ordurarteko GGlan biltzen ziren bi dimentsio hartzen zituen kontutan, baina ez errenta edo diru sarreren dimentsioa, berarekin alde nabarmena ezarriz. Hala ere, bi adierazle hauen artean desberdintasun behinena, dimentsio horiek islatzeko bakoitzean aukeratzen diren adierazleetan ematen da. GPIk oinarritzotzat hartzen dituen dimentsioak, bere asetze edo gabezi maila ebaluatu nahi dituenak, honakoak dira: bizitza osasuntsua izatea, elikadura ona barne; birsortzeko gaitasuna izatea baldintza osasuntsu eta seguruetan; eta alfabetatua izatea eta nolabaiteko ezagutza izatea. Alor hauetan emandako gaitasun gabezien maila neurtzeko aukeratutako adierazleak honakoak dira: i) pisu gutxiko bost urte azpiko haurren portzentaia; ii) behar bezalako laguntza profesionala jasotzen ez duten erditzeen portzentaia; eta iii) alfabetatuak ez diren hamabost urte baino gehiagoko emakumeen portzentaia.

1997. urteko Giza Garapenaren Txostenean GiPIa aurreko GPIren jarraipen gisa aurkezten du. Indize honekin bilatzen duena bizitza baliotsua eta preziatua bizitzeko aukeren gaineko gabeziak islatzea dela aldarrikatu ondoren, txostenak askatasun politikoa, segurtasun pertsonala, edo sostengarritasuna eta belaunaldien arteko

ekitatearenganako mehatxuak bezalako giza pobreziaren dimentsio garrantzitsuak indizean biltzeak dituen zailtasunak onartzen ditu. (PNUD, 1997:19).

Aurreko indizearekin duen jarraikortasuna zalantzan jartzeko modukoa da bi adierazleak osatzeko alor bakoitzean erabiltzen diren adierazle zehatzak ikusirik. Ondorengo taulan ikus daitezke GiPI indizeak biltzen dituen alorrak eta hauek neurtzeko aukeratutako adierazle zehatzak:

Oinarrizko Dimentsioak	Adierazleak
Biziraupena	40 urte bete aurretik hiltzea espero den populazioaren portzentaia
Ezagutza	Alfabetatugabeko helduen portzentaia
Bizi baldintza duinak	Osasun eta ur edangarria zerbitzuen eskuragarritasuna Pisu gutxiko bost urte azpiko haurren portzentaia

Alor bakoitzean aukeratutako adierazleak, bost urtez azpiko azpielikatutako umeen portzentaia kenduta, aurreko adierazletik (GPI) ezberdinak dira. Aipagarriagoa dena, emakumeei aipamen berezia egiten zutenak kenduak izan dira. Hau da, alfabetatu gabekoen kopurua generoa kontutan izan gabe egiten da eta baldintza desegokietan egindako erditzeak ez dira kontutan hartzen. Ondorioz adierazle berria klasikoagoa, ohikoagoa da eta pobreziaren egoeraren inguruan argazki arinagoa ematen du, aurreko GPIk ematen zuena baino. Izan ere, azken adierazlearekin egindako neurketak Mundu Bankuaren pobrezi muga erabilita (\$ 1 pertsona/egun/urtean) baino emaitza leunagoak ateratzen dira pobreziaren hedapenari dagokionez. 1997. urterako datuak honakoak dira: GiPI erabilita garabideen herrialdeko populazioaren laurdena dago pobrezia egoeran eta aldiz, diru sarrerak kontuan hartuta populazioaren herena dago pobrezi egoeran (PNUD, 1997:26).

Bigarren indize hau osatzerakoan herrialde bakoitzeko gizarte egoera kontutan hartu behar dela aipatzen du PNUD-ek. Ezin dela herrialde guztietarako baliagarria izango den giza pobreziaren indize bakarra osatu. Ondorioz, 1998. urteko txostenetik aurrera Giza Garapenaren Indize ezberdin bi osatzen ditu. Bata garabideetan dauden herrialdeentzako, GiPI-1 alegia, eta garatutako herrialdeentzako bestea,

GiPI-2a. Bigarren honetan adierazle berak erabiltzen dira biziraupena eta ezagutza alorrak neurtzeko, pobrezi egoera zein den zehatzeko exijentzi handiagoarekin egiten bada ere. Biziraupenari dagokionez, 40 urtetik 60 urtera aldatzen da muga eta ezagutzari buruz, analfabetismo funtzionala (gizarte moderno batean aritzeko irakurtzeko eta idazteko gutxieneko gaitasunak ez izatea, botika baten erabilpen instrukzioak irakurtzea esaterako) ematen denean kontutan hartzen da.

Baina aldaketa nagusiena hornikuntza ekonomikoa neurtzeko orduan ematen da. Pobrezia egoera ematen da pertsonen gizartearen sarreren medianaren ehuneko berrogeita hamarra baino sarrera baxuagoak dituztenean, eta aldi berean, gizarte esklusioa kontutan hartzen da giza pobreziaren osagai bezala, langabezia 12 hilabete baino gehiago irautea adierazle gisa harturik.

Bi adierazle hauen bitartez egiten den bereizketa honek bi ondorio nagusi ditu: pobreziaren arau unibertsala zehatzeko saiakera baztertzea bata; eta pobreziaren izaera erlatiboa, gizarte bakoitzaren egoerara egokitzen den pobrezi kontzeptuaren beharra bestea. Honek guztiak zalantzak sortzen ditu giza pobrezia neurtzeko oinarritzko beharren ikuspuntutik, gutxieneko oinarri berdinak jarri behar diren denentzako edo ak garapenaren egoeraren arabera erabakitzeke orduan. PNUD-en ikuspegi honen arabera ematen du garabideetako herrialdeak ongizate mailako helburu ahuletara iristearekin konformatu behar dutela diotenen iritzia sostengatzen duela. Eztabaida honek ez du irteera erraza eta bakarra. Zenbait beharren kasuan gutxieneko maila garatutako herrialdeen mailan jartzea errealitatetik kanpo dago. Baina era berean, beste alor batzuetan erreferentzia unibertsalak behar dira.

Garabideetako herrialdeen egoera kontutan hartuta pobreziaren gaineko indize zehatza osatzea positiboa izan badaiteke ere, kontu handia izan behar da, eta adi egon beharra dago, ahalegin hori, aurreko pobrezi mugak bezala, biziraupen fisikoan besterik ez geratzeko eta gaitasun gabeziak gainditzeko bideak baliagarriak suertatzen direnentz ikusteko.

PNUD-ek (1999:146-8) Giza Pobreziaren Indizea erabilia egindako neurketa propioak argitaratu ditu, Mundu Bankuaren metodo erabiliz ateratakoekin batera. Bien artean alde nabarmenak dagoz zenbait herrialdeen kasuan. Esaterako Latino Amerikan eta Kariben, pobreziaren hedapena % 14,5ko da GiPIren arabera eta % 15,6 \$ 1bat pertsona eta eguneko, errentaren pobrezi muga erabiliz. Gauza bera, gertatzen da Sahara Azpiko Afrikan. PNUD-en arabera % 40,6 pobre daude eta Mundu Bankuaren arabera % 46,3.